



Usurbilgo Udala

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2016KO APIRILAREN 26AN
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK:

Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre.

Zinegotziak: Jone Urdanpilleta Urdanpilleta eta Alaitz Aizpurua Labaka.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ezin-etorria adierazi dute: Irene Garcia Palaciosen eta Josune Estella Arranzek.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA:

***2016KO APIRILAREN 12KO BILKURAKO AKTA.**

Batzarkideek, 2016ko apirilaren 12ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- 2016KO ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA ONARTZEA.

Espediente zenb.:ID.06/2016-0219

IKUSIRIK

Udalbatzak 2015eko abenduaren 23an egindako ohiko bilkuran Usurbilgo Udaleko 2016ko Langileen Plantila eta Lanpostuen Zerrenda onartu zituen. 2016ko urtarrilaren 27an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren. Ondoren, otsailaren 23ko ohiko Plenoko bilkuran Plantila eta Lanpostuen Zerrendaren aldaketa onartu zen eta 2016ko martxoaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, martxoaren 22an behin betikoz onartuta geratu ziren.

KONTUAN HARTURIK

Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Testu Bategineko 70. artikulua eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 23. eta 24. artikuluek diotena.

2015eko urriaren 30ean Estatuto Aldizkari Ofizialean argitaraturiko 48/2015 Legeko 20. artikulua.

Alkatetzaren 2005/1064 zenbakidun Dekretuan Enplegu Publikoaren eskaintza onartzeko ezarritako eskuduntzen egikaritzan, Tokiko Gobernu Batzarrari eginiko lagapena.



Usurbilgo Udala

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGOA.- 2016ko Enplegu Publikorako Eskaintza onartzea, akordio honekin batera I. Eranskin gisa doan dokumentuan azaltzen den plazak jasotzen dituen.

BIGARRENGOA.- 2016ko Enplegu Publikorako Eskaintza Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian laburpen bat argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Plaza betetzeko hautaketa prozesua arautuko duten Oinarriak prestatzeko izapideei hasiera ematea.

I. ERANSKINA

2016KO ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 23. artikuluan ezarritakoari dagokionez, hutsik dauden plazak 2016ko martxoaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaraturiko 2016 urteko Lanpostuen Zerrendan agertzen direnak dira.

2016 urteko Enplegu Publikorako Eskaintzan jasotako lanpostuak honakoak dira:

Sailkapen taldea	Eskala	Azpieskala	Izena	Hizkuntza eskakizuna	Plaza kopurua	Txanda	Lanaldia
C2	Administrazio Berezia	Zerbitzu bereziak	Lorazain ofiziala	B2 derrigorrezkoa	1	Barne promozioa	100%
E	Administrazio Berezia	Zerbitzu Berezia	Operario 8	B1 derrigorrezkoa	1	Irekia	100%

3.- GALTZARAGAÑA KALEA 2, 4, 6 ETA PUNTAPAX KALEA 3, 5, 7 ETA 9 ETXEETAKO JABEKIDEEI, GALTZARAGAÑA GARAJEETAKO INPERMEABILIZAZIOA KONPONTZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2016-0142

Galtzaragaña kalea 2, 4, 6 eta puntapax kalea 3, 5, 7 eta 9 etxeetako jabekideen ordezkartzan diharduen Angel Ainziburu Odriozola jaunak, Galtzagaña garajeetako inpermeabilizazioa konpontzeko udal baimena eskatu du.

Galtzagañako plazako urbanizazioa eraberritzeko udal baimena eskatzearekin batera, Kerman Elizondo Arrieta eta Borja Agirresarobe Lopetegi arkitektoek idatzitako



Usurbilgo Udala

Exekuzio Proiektua aurkeztu dute. Aurkeztutako proiektua eta gainontzeko dokumentazioa aztertu ostean udal teknikariek dagozkien txostena eman dituzte.

Udal aparejadoreak, Felix Aizpurua Arzallus jaunak, 2013ko uztailaren 8an emandako ALDEKO txostenean zera zioen hitzez hitz: *“Proiektua aztertu da eta proposatutako aldaketak jasota daudenez, Zerbitzuak eta Mantenu sailari dagozkionez aldeko txostena ematen da.”*

Udal arkitektoak berriz, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, 2013ko ekainaren 28an ALDEKO txosten BALDINTZATUA eman zuen. 2016ko apirilaren 20an berriz, Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, ezarri beharreko fidantzaren zehaztapena jakinarazi du.

Gauzak horrela, udal teknikarien txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: GALTZARAGAÑA KALEA 2, 4, 6 eta PUNTAPAX KALEA 3, 5, 7 eta 9 ETXEETAKO JABEKIDEEN ordezkari izan diren ANGEL AINZIBURU ODRIOSOLA jaunari, Galtzagaña garajeetako inpermeabilizazioa konpontzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- Kerman Elizondo Arrieta eta Borja Agirresarobe Lopetegi arkitektoek 2013ko apirilean idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak bere txostenean ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epe barruan** udal arkitektoak zehaztutako baldintzak betez dagokion dokumentazio osagarria aurkeztuko da:
 - o IRISGARRITASUN ARAUDIAREN BETETZEA; Ezinbestean bete beharko da indarrean den irisgarritasun araudia:
 1. Zoladurek 68/2000 Dekretuak II. Eranskineko 3.3 artikuluan eta Orden VIV/561/2010aren 11. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte. Bereziki, azpimarratzen da, akabera materialek sor ditzaketen irristakortasun arazoak ekiditea eta horren inguruan, indarrean den araudia betetzea.
 2. Sareta, zuhaitz-txorko eta instalazio tapek Orden VIV/561/2010aren 12. artikuluan ezarritakoak bete beharko dituzte.
 3. Eskailerek 68/2000 Dekretuak II. Eranskineko 3.7 artikuluan eta Orden VIV/561/2010aren 15. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte eta eskubarandak ezarri beharko dira 68/2000 Dekretuaren II. Eranskineko 3.10 artikuluan araberakoak (eskailerek 2.4m baino zabalera handiagoa badute, eskubaranda bat erdian eta alboetara, finkatutako diseinuarekin, e.a.). **Ikusi da ez dela betetzen, zuzendu egin beharko da.**



Usurbilgo Udala

4. Arrapalek 1,8 m-ko zabalera gutxienekoa bete behar dute eta orohar, Orden VIV/561/2010aren 14. artikuluan ezarritako baldintzak.
 5. Hiri altzairuek 68/2000 Dekretuak II. Eranskinaren 4. artikulua eta Orden VIV/561/2010aren 8. kapituluak ezarritakoa bete beharko dute.
 6. 0,55m baino gehiagoko sestra aldaketa duten desnibeletan Orden VIV/561/2010aren 30. artikulua bete beharko da.
 7. Orohar, 2/1997 Irisgarritasun Legea, 68/2000 Dekretua eta Orden VIV/561/2010 espazio publiko hiritartuetan irisgarritasun baldintzak finkatzen dituen araua.
 8. Guzti hau betetzen duen zuzenketa egin eta dokumentazioa aurkeztu beharko da.
- XAFLA IRAGAZGAITZA ETA ISOLAMENDUA: Jarriko den xafla iragazgaitza berriak autobabestua izan beharko du eta landaretzarik jarriko den azaleretan, sustraien aurkako xafla jarri beharko da. Orohar, EKT DB-HS atala bete beharko da estalkiari dagokionean.
 -
 - AURREKONTUAREN EGOKITZAPENA: Udal teknikariek ezarritako baldintzen betetzeak ekar litzakeen egokitzapenak jasotzen dituen aurrekontua aurkeztu beharko da.
 -
 - BESTEAK: Bai Proiektuan eta baita obren egikaritzan ere indarrean den araudia bete beharko da; besteren artean, EKT, 68/2000 Dekretua, 20/97 Irisgarritasun Legea, Orden VIV/561/2010 espazio publiko hiritartuetan irisgarritasun baldintzak finkatzen dituen araua, Usurbilgo Arau Subsidiarioak, e.a.
 -
- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epe barruan eta zuinketa akta izenpetu aurretik**, Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 11.670,50 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (14.004,60 € euro). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.
- 14.004,60 €-ko fidantza**, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "Fidantza: HZ.04/2016-0142 jarriaz kontzeptuan.
- Obrei hasiera ofiziala emateko **ZUINKETA AKTA izenpetu beharko da** udal aparejadorearekin.
 - **OBRA BAIMENAREN EPEAK**:
 - Obra hasteko epea: 6 hilabete.
 - Obraren egikaritzaren epea: 2 urte.



Usurbilgo Udala

- Obra etenaldi gehiengoa 6 hilabete.
- Obra burutzeko zoru publikoan aldamiok edo kontainerra jarri behar izanez gero, udal baimena eskatuko da horretarako prestatuta dagoen inprimakia erabiliz. Hartuko den azalera eta, hasierako eta bukaerako egunak zehaztuko dira.
- Behin obrak bukatu ostean, Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:

- Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.

Horrekin batera CTE betetzen duela ziurtatuko duen agiria aurkeztuko da, Zuzendari Teknikoak zigilaturik eta Kolegioan bisaturik.

- Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.

1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren planoak ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzako obra lanak bertan jasoaz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.

- Eraikinen eta instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 cm. takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozela adieraziz.
- Obralanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.
- Behin obrak amaitu ostean, lehen erabilera jaso aurretik, urbanizazioaren harrera akta izenpetu beharko da, besteren artean ondoko baldintzak jasoz:

“Garaje gainetan aurkitzen den plazari dagokionez, honako baldintzak finkatzea:

- Soportale edo lagatutako gainontzeko elementuen espazioa, jabeago pribatuko espazioa da baina azalera erabilpen publikoko menpekotzearekin, azpitan beste erabilpeneko lokalak eta garajeak bait daude eraikita.
- Usurbilgo Udalarik dagokio elementu apaingarrien kontserbazioa eta mantenua, baita ere ekipamendu eta haltzariena eta azalerako erremateak.



Usurbilgo Udala

- Aipatutako espazioetako eraikuntzazko edo estrukturazko elementuez Udalak ez du inongo ardura eta obligaziorik, beste erabilerako garaje eta lokaletako finkaren zatia edo estalkia osatzen dutenez, ondorioz, kontserbazio edo mantenimendu egokirako beharrezkoak diren iharduketaz ere ez da arduratuko.”
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberrako segurtasun neurriak beteko dira.
 - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

4.- PATXI AZKONOBETA ETXEBERRIA JAUNARI, AGINAGAKO URDAIRAAUNDI BASERRIAREN ERANSKINA BIRGAITZEKO ETA HANDITZEKO UDAL BAIMENA UKATZEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2016-0488

PATXI AZKONOBETA ETXEBERRIA jaunak, Aginagako Urdairraundi baserriaren eranskina birgaitzeko eta handitzeko udal baimena eskatu du.

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, eskaera aztertu ostean, ondoko txostena eman du:

UA2016_OHAN__14

BULEGO TEKNIKOA

Udal Teknikariak Alkate jaunari

OBRA HAUNDIAK

**AGINAGAKO URDAIRA HAUNDI BASERRIAREN ERANSKINA
BIRGAITZEKO eta HANDITZEKO OINARRIZKO PROIEKTUA ETA
DOKUMENTAZIO GEHIGARRIARI TXOSTENA**

KOKAPENA: Urdaira baserria, Usurbil

ESKATZAILEA: Patxi Azkonobieta Etxeberria

ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.04/2015-0488

ESKAERA DATA: 2016eko martxoaren 11

OINARRIZKO PROIEKTUAREN ERREDAKTATZAILEAK: Marina Lertxundi Arkitektoa.

ELKARGO OFIZIALAK IKUS-ONETSIA: EZ

OINARRIZKO PROIEKTUAREN PEM: 77.650EURO.



Usurbilgo Udala

HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA
AURREKONTUA:500euro FIDANTZA (%120): 600EURO

1. AURREKARIAK

- 2015eko azaroaren 24an Patxi Azkonobieta Etxeberria jaunak Aginagako Urdaira Baserria birgaitzeko oinarrizko Proiektua aurkeztu du Udalean dagokion obra baimena eskatuz.
- 2016ko otsailaren 24an udal arkitektoa txostena idatzi zion dokumentazio gehigarria eskatuz:
 - *“Eraikuntza multzo osoaren egungo egoeraren planu zehatzak (oinak, altxaerak eta ebakidurak); Urdaira Haundi, Urdaira Txiki eta eranskinak barneratzen dituztenak.*
 - *Eraikin multzoaren egungo egoeraren argazkiak; memorian ematen den deskribapena eta datuak zehazten eta osatzen dituztenak.*
 - *Ebakiduren nondik norakoa oin planuetan zehaztuta, ebakidura planuak ulertzearren.*

Horrekin batera, aurkeztu den Oinarrizko Proiektua izenpetu gabe dagoenez, Teknikari eskudun tituludun gisa aritzeko aitopena aurkeztu beharko da. “

- 2016ko martxoaren 2an interesatuari eskaera jakinarazi zaio.
- 2016ko martxoaren 11ean interesatuak dokumentazio gehigarria aurkeztu du.

Erlazionatuak:

ZENB. 2-5-3/SIG. 27-2: URDAIRA TXIKI BASERRIA ERABERRITU ETA ERANSKIN BAT ERAIKI SAGARDOTEGIA JARTZEKO.

- 1992ko maiatzaren 5ean Gobernu Batzordeak Udaira Txiki baserriaren eranskina legeztatzeke baimena eman zuen.

ZENBK 277/sig. 0191-04: urtea 1993: URDAIRA TXIKI BASERRIAN SAGARDOTEGIA LEGEZTATZEA

- 1993ko uztailaren 21ean Gobernu Batzordeak Francisco Azkonobieta jaunari Urdaira Sagardotegiaren irekiera baimena eman zion.

Urtea. 1997: URDAIRA HAUNDI BASERRIA ERABERRITZEA

- 1997ko maiatzaren 6an Gobernu Batzordeak Urdaira Haundi baserria eraberritzeko baimena eman zuen.

2. TXOSTENA

Patxi Azkonobieta Etxeberria jaunak, Aginagako Urdaira baserria birgaitzeko Oinarrizko Proiektua eta haren dokumentazio gehigarria aurkeztu du, obra baimena eskatuz.

Aurkeztu dokumentazioa da; eskaera orria eta Oinarrizko Proiektua teknikari gaituak (arkitektoak) izenpetua eta dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsi gabe. Oinarrizko Proiektuak barneratzen ditu;



Usurbilgo Udala

memoria (hirigintza baldintzen betetzea, EKT-ren justifikazioa), aurrekontua eta planuak. Oinarrizko Proiektuaren PEM-A 77.650EUROkoa da. Horrekin batera, beranduago, udalaren eskaerari erantzunaz dokumentazio gehigarria aurkeztu du: eriakuntza multzo osoaren egungo egoeraren planu zehatzak, argazkiak eta ebakiduren nondik norakoak planuetan zehaztuta. Ez da aurkeztu Teknikari eskudun tituludun gisa aritzeko aitortpena.

Proiektuaren memorian, honela azaltzen da proposamenaren helburua:

“El objeto de este proyecto es reformar el edificio anejo al caserío urdaira Aundi de Usurbil por su fachada oeste. (...) Tiene una superficie de 140,34 m².” Aipatu erreforma egiteko eskuhartzea, honela zehazten da: *“Se mantendrían la los muros de piedra de mampostería de piedra natural de arenisca existentes, hasta la ltura de aleros actuales en fachadas norte y sur, (...). El resto de cierres hasta conseguir la altura de aleros del caserío Urdaira Aundi se realizaría con muros de bloque de hormigón (...). Se mantendrían la altura de cumbrera y aleros y la pendiente de cubierta del caserío Urdaira Aundi. Las cotas con las señaladas en los planos, donde la cumbrera se levanta aproximadamente 2,5 m”.* Laburbilduz, **proiektuaren helburua da Urdaira-Haundi baserriaren 140,32 m²-ko eranskina birgaitzea estalkia 2,5 metro altxatuz. Urdaira-Haundi baserriaren estalkiaren jarraipena lortuko litzateke horrela.**

Gainera: *“La altura del forjado se ajustaría a la cota de la terraza existente de comunicación con el caserío Urdaira Txiki, que supone **levantar en 23 cms la cota del forjado de madera actual**” eta **“Se rehará el porche, pero con estructura de hormigón y como continuidad de la nueva cubierta. El gallinero y la máquina de climatización (...) se recolocarán en la fachada sur, (...) realizando una caseta de 18,4 m².”***

Urdaira Haundi baserriaren eranskina Usurbilgo Aginaga auzoan kokatzen da, indarrean diren Arau Subsidiarioetako Testu Bateginaren arabera nekazaritza eta abelzantza babesteko lurzoru ez urbanizagarrian. Esan beharra dago, AASSTB-ren 69. artikuluan finkatzen denez, Urdaira Haundi baserria *Herri Mailako babesa duten ondasun higiezin*en zerrendan barneratua dago, baita *balizko eremu arkeologikoa* dutenetan ere. Ondorioz, edozein eskuhartzetan 70. artikuluan ezarritakoa bete beharko da (aplikagarriak diren gainontzekoekin batera).

Eskaera eta dokumentazioa aurkeztuta honakoa esan daiteke:

- **URDAIRA-HAUNDI BASERRIAREN ERANSKINA:** Aurkeztu den dokumentazioan argi zehazten da birgaitu/erreformatu nahi den eraikina Urdaira-Haundi baserriaren eranskina dela. Horrekin batera, jabeago erregistroan egin da ziurtapena eta bertan honela jasotzen da Urdaira-Haundi baserriaren deskribapena:

“DESCRIPCIÓN DE LA FINCA:



Usurbilgo Udala

RÚSTICA. Caserío llamado URDAIRA-AUNDI (...). consta de edificio de planta baja y un piso alto o desván, ocupando una superficie de doscientos ochenta metros cuadrados y cincuenta centímetros cuadrados, incluyendo la parte inhabitable que tiene por la parte oriente y por poniente, con el caserío Urdaira-chiqui (...).”

Beraz, zalantza gabe, eskuhartu nahi den eraikina baserriaren eranskina da, hain zuzen, jabegoaren erregistroan “*parte inhabitable*” bezala izendatzen den hori. Hala, eranskinaren estalkia baserriaren beraren estalkiaren sestraraino altxa daitekeen ala ez ondorioztatzeko, indarrean diren AASSTB-tako 54. artikulua da aplikagarria:

“d) BASERRIEN ZABALKUNTZA, HORIEN USTIAKUNTZARI LOTUTAKO ERABILERETARAKO. XEDAPEN PARTIKULARRAK.

- 1. Baserrien ustiakuntzari lotutako erabileretarako, eraikinen zabalkuntzak artisau eraz gauzatu ahal izan daitezen idazten dira honako irizpideak.*
- 2. **Eraikitako azalerak ezingo ditu gainditu 50 m2.***
- 3. Erabilerak honakoak izango dira:*
- 4. Zabalketa ezingo da erabili egoitzerako edo eta ganadua gobernatzeko.*
- 5. Barne zatiketarik ez da baimenduko.*
- 6. **Zabalkuntzak, baserriaren fatxada baten luzeera guztia hartuko du.***
- 7. **Estalkia, orain baserriak daukanaren luzapnea izango da.***
- 8. (...).”*

Beraz, **baserriaren beraren estalkiaren zabalkuntza eta sestra bera indarrean diren arauetan 50 m2-ko azaleradun eranskinetarako bakarrik onartzen denez, aurkeztu den proposamena ez da onargarria.**

- **URDAIRA-HAUNDI BASERRIAREN EGUNGO EGOERA:** Aurkeztu den dokumentazioa zehazten denez, Urdaira-Haundi baserriaren goiko solairuan egun ematen den erabilera etxebizitza erabilera da. Horrekin batera, aurkeztu altxaera planuen arabera, goiko solairu horrek itxitura osoak ditu eta hegoaldeko altxaeran portxe antzekoa kokatzen da behe solairuari atxikita.

Udal artxiboetan ageri denaren arabera, Urdaira-Haundi baserria abandonatua zegoen eta 1997ko maiatzaren 6an gobernu Batzordeak Urdaira-Haundi baserria eraberritzeko baimena eman zuen, horretarako, besteren artean nekazal tresneria gordetzeko bakarrik erabili beharko zela eta goiko solairua itxiturarik gabe, obrak Matias Grande Injinierru



Usurbilgo Udala

Industrialak idatzitako proiektura egokituz egitera baldintzatuz. Baimen hartan ez zen portxerik barneratu eta udal artxiboan ere ez da portxea baimendu izana baieztatu.

Ondorioz, esan liteke, **interesatuak baieztatutakoaren arabera, Urdaira-Haundi baserrian baimendu gabeko obrak egin direla eta baimendu gabeko erabilerak ematen ari direla.**

3. ONDORIOA

Goian aipatutakoari jarraiki, **Urdaira-Haundi baserriaren eranskina birgaitzeko eta handitzeko proiektuari AURKAKO txostena idazten zaio.**

Esan beharra dago, indarrean diren Arau Subsidiarioen Testu Bateginak ez dituela espreski sagardotegiak erregulatzen eta ondorioz, halako erabilerak ematen diren baserri edota eraikuntza multzoetan sor litezkeen beharrak ez direla aurreikusi. Horrexegatik, behean izenpetzen duen teknikariaren iritziz egun Udala erredaktatzen ari den Hiri Antolamenduko Plan Orokorren baitan sagardotegi erabilerara bideratutako baserri eta eraikinen azterketa eta hausnarketa egin beharko litzateke. Hala ikusiko balitz, erregulazio eguneratua barneratuz, egungo beharrei erantzuten dien araudia izateko. Horrekin batera, interesatuak HAPO dokumentuaren inguruko kontsultarik egin edota bere beharren berri eman nahiko balu, Hirigintza Sailera bideratu lezake, Jone Miner udal arkitektoarekin harremanetan jarriaz.

Azkenik, jakinarazten da Urdaira-Haundi baserrian baimendu gabeko obrak egin direla (portxea, itxiturak, ...e.a.) eta baimendu gabeko erabilera ematen dela, 2/2006 Legearen 219. artikulua eta hurrengoak aplikagarriak izanik. Horien legeztapena, bere kasuan, aparteko espedientera bideratzen da: legeztapenaren mugak finkatzen dituen txosten juridikoa beharrezkoa izanik.

Urdaira-txiki eta haren eranskinaren inguruan planuak aurkeztu diren arren, txosten honetan ez da haien azterketarik egiten. Edonola, aurrekarietan zehazten diren eta Udalak orainartean emandako baimenetara egokitu beharko dute ezinbestean: hala ez balitz, legeztapen prozedura bideratuz.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Aipatu dokumentazioa aurkeztutakoan jarraitu ahalko da eskaera aztertzen.

Usurbilen, 2016ko apirilaren 21an
UDAL ARKITEKTOA/HIRIGINTZA, OBRAK ETA INGURUMENA
SAILEKO BURUA
Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune



Usurbilgo Udala

Udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: PATXI AZKONBIETA ETXEBERRIA jaunak, Aginagako Urdairaaundi baserriaren eranskina birgaitzeko eta handitzeko udal baimena **UKATZEA** udal arkitektoak bere txostenean emandako arrazoiengatik.

BIGARRENA: Hiri Antolamenduko Plan Orokorren erredaktatzaileari, Jone Miner Aginaga arkitektoari, erabaki honen berri ematea, Hiri Antolamenduko Plan Orokorren baitan sagardotegi erabilerara bideratutako baserri eta eraikinen azterketa eta hausnarketa egin dezan egokia ikusten badu.

HIRUGARRENA: PATXI AZKONBIETA ETXEBERRIA jaunari gogoraraztea, une honetan erredaktatzen ari den Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko dokumentuaren inguruko kontsultarik egin edota bere beharren berri eman nahiko balu, Hirigintza Sailera bideratu hurbildu eta Jone Miner Aginaga arkitektoarekin harremanetan jarri daitekeela.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri PATXI AZKONBIETA ETXEBERRIA jaunari ematea.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:00etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.